

Goi Eskola Politeknikoa

Albisteak

Skövde Unibertsitatea

2012/06/19

Suediar unibertsitate aktibo honek, urtero gure ingeniaritzako ikasleak hartzen ditu Erasmus programari esker. Amankomunean ditugun jarduerak bultzatu eta gehitzeko asmoz, Skövdeko unibertsitateko bi irakasle gurean izan dira, Magnus Holm eta Göran Adamson. Irakasle hauek, automatizazio taldeko kideak izaki, gure Industria Elektronikako Graduko ikasleei eskainitako Robotikako ikastaro batean hartu dute parte. Ikastaro honen gaia “Robot offline programming and simulation using ABB’s software RobotStudio” izan da.
Etorkizunean Skövdeko unibertsitatearekin lankidetza harremanak zabaltzea espero dugu, bereziki elektronika sailean.

